# SARAUBE BERRIAK

*Aiarako Udalaren aldizkaria #106*
*2020ko AZAROA/ NOVIEMBRE*





## Indarkeria matxistaren kontrako aldarriak eta ekintzak biderkatuko dira azaroan

Urtero bezala, aurten ere abiatu da azaroaren 25eko kanpaina, indarkeria matxistaren aurkakoa. Aiara Berdintasunaren alde Foroan denon artean antolatu dira ekintzak. Hala, aurten, honakoak antolatu dira aldarrikatzeko emakumeek bortizkeriarik gabeko bizi behar dutela.

Azaroaren 22an, igandea, 11:00etan, Ferialean, herrietan postontzi moreak jartzeko ekimena aurkeztuko da, emakumeek toki bat izan dezaten bizi izandako egoera matxistak partekatzeko era anonimoan. Horretarako, herrietako bizilagunak gonbidatu nahi dira herri bakoitzean pentsatzeko postontzia non jarri eta nortzuk arduratuko diren bertako mezuak jasotzen. Modu berean, panelak jartzeko asmoa dago, herrietan gune feministak izateko, eta paneletan argi gorria jarriko da 24 orduz, indarkeria matxista kasuak daudenean. Gainera, hurbilduko direnei eskatu nahi zaie emakumeen oinetakoak ekartzea, pankartarekin batera jartzeko.

Azaroaren 25ean, elkarrateratzea izango da Ferialean, 18:00etan. Azaroaren 27an, Beldur Barik lehiaketako sariak banatuko dira, aurten Orozkon izango da, on-line. Bertan parte hartuko dute Etxaurren ikastolan egindako lanek.

Azaroan ere, eguna zehazteko dagoen arren, autodefentsa feministari buruzko hitzaldia egingo da, Maitena Monroyk azaltzeko neska gazteei iaz egindako lana eta ondorioak. Hitzaldia Internet bidez izango da.

Aurtengo kanpainaren barruan, eserleku bat morez margotuko da, indarkeria matxistaren aurkako sinbolo izan dadin. Halaber, bandera moreak banatuko dira herritarren artean, etxeko balkoietan eta leihoetan jartzeko. Ikurrak "Aiaran, indarkeria matxistarik ez" esaldia jasoko du eta banatzeko, ikastolaren, elkarteen eta administrazio batzarren laguntza egongo da eta udaletxean ere eskuratzeko aukera emango dute. Horrez gain, LaiaPlazara on-line plataforma feministan ere hainbat ekintza antolatu dira. Beraz, denon artean prestatutako kanpaina dugu aurtengoa, denon beharra dagoelako indarkeria matxistari aurre egin eta

*Como cada año, el 25 de noviembre se va a celebrar el Día Internacional Contra la Violencia Machista y en el municipio Aiara Berdintasunaren Alde Foroa ha decidido colectivamente las actividades que se llevarán a cabo. El 22 de noviembre a las 11:00 en el Ferial se presentará la iniciativa para instalar en todas las juntas buzones morados para que las mujeres compartan sus experiencias. El 25 de noviembre, en el mismo lugar, tendrá lugar una concentración a las 18:00. Además, el 27 de noviembre se entregarán los premios del Concurso Beldur Barik y este mismo mes Maitena Monroy ofrecerá una charla sobre autodefensa feminista. Por otra parte, se repartirán banderolas con el lema "Aiaran, indarkeria matxistarik ez".*

# Sacar partido a los residuos orgánicos generados en el hogar



Los vecinos y vecinas de Aiara podrán participar en los cursos on-line sobre compostaje organizados por la Cuadrilla de Ayala, dentro de la Semana Europea por la Prevención y Reciclaje de los residuos.

Concretamente, estos webinars se emitirán a través de la plataforma Zoom en dos sesiones. La del 20 de noviembre, viernes, a las 18:00, tendrá por título “Aprender a hacer compost”. Una semana después, el 27 de noviembre, viernes, a la misma hora, será el turno del taller “Aplicación del compost y cómo hacer tu propio compostador”.

Para participar es necesario inscribirse antes del día 18 de noviembre enviando un correo electrónico a aiaraldea.konposta@gmail.com, indicando las sesiones que resulten de interés. Entre las personas de la Cuadrilla de Ayala que participen en la sesión del día 20 de noviembre se sortearán 25 compostadores con sus 25 aireadores y manuales.

Estas sesiones se podrán visualizar después accediendo al nuevo canal de Youtube de la Cuadrilla de Ayala.

*Aiarako herritarrek etxean sortzen dituzten hondakin organikoak baliatu ditzaten, Kuadrillak konpostaje saio bi antolatu ditu. Biak Internet bidezkoak izango dira eta Zoom plataforma erabiliko da emititzeko. Lehenengo hitzordua izango da azaroaren 20an 18:00etan, irakasteko nola egiten den konposta. Aldiz, astebete geroago, azaroaren 27an, ordu berean, landuko den gaia konpostagailua izango da, eta norberak bat nola egin azalduko dute. Webinarretan parte hartzeko, azaroaren 18 baino lehen mezua bidali beharko da aiaraldea.konposta@gmail.com helbidera. Lehenengo hitzaldian, gainera, 25 konpostagailu zozketatuko dituzte. Bi saioak ikusgai egongo dira gero Aiarako Kuadrillako Youtube kanalean.*

# Reactívate+, un futuro sostenible




El Ayuntamiento de Ayala anima a la ciudadanía a adherirse a la campaña Berraktibatu+/Reactivate+, Esta es una iniciativa fruto de la colaboración público--privada y se incluye dentro del marco del programa GAP (Global Action Plan).

Su objetivo es generar conciencia ambiental en los hogares de Euskadi, abordando aspectos relacionados con el consumo responsable del agua, la movilidad, la compra sostenible, la gestión de residuos, el consumo de energía, la alimentación, etc.

A través de una plataforma digital, la familia que se inscriba en el programa irá disponiendo de consejos dirigidos a mejorar sus hábitos de vida y así contribuir a la sostenibilidad del planeta. Para ello únicamente hay que visitar la web www.reactivatemas.eus y empezar a interiorizar nuevas pautas. El Consistorio anima a la participación, ya que sólo la implicación ciudadana puede disminuir las emisiones de $CO_2$, principales causantes del cambio climático, y de ese modo cumplir los Obetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de Naciones Unidas.







# Euskaraldia hastera doa, izan zaitez parte!




Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa kolektiboa, azaroaren 20an hasiko da, eta oraindik denbora dago izena emateko eta modu aktiboan parte hartzeko, azaroaren 19an agortuko baita horretarako epea. Berez, bi modu egongo dira batzeko. Alde batetik, etxera heldu zen eskuorria bete eta Aiarako Udaletxean, Etxaurren Ikastolan, Arespaldizako farmazian edota Luiaondoko Otueta Gizarte Etxean uztea, edo www.euskaraldia.eus webgunean sartzea inskripzioa egiteko.

Interesdunek hautatu beharko dute "Ahobizi" edo "Belarriprest" rola hartzea eta hori identifikatzeko txapen banaketa hasiko da azaroaren 20an bertan, Aiarako Udaletxean eta Arespalditzako Farmazian. Norbanakoen parte hartzea ez ezik, aurtengo Euskaraldiak, abenduaren 4ra arte luzatuko dena, esparru kolektiboen babesa ere bilatu du. Horretarako "Ariguneak" sortu dira eta Aiararen kasuan, 11 daude: Udala eta Kuadrilla, Aiarako Farmazia, Aunia Kultura Elkartea, Etorki kooperatiba, Etxaurren Ikastola, Hogeitalau Euskara Elkartea, Kopas, Orkatz Basolanak, Zelaikoetxe Landetxea eta Zurekin Fisioterapia.

*Euskaraldia, el ejercicio colectivo para transformar los hábitos lingüísticos y dar mayor protagonismo al euskara, arrancará el 20 de noviembre y se prolongará hasta el 4 de diciembre. El plazo de inscripción como "Ahobizi" o "Belarriprest" acabará un día antes, el 19 de noviembre, y se puede llevar a cabo rellenando el tríptico que llegó a cada domicilio y entregándolo en el Ayuntamiento de Ayala, en la Ikastola Etxaurren, en la farmacia de Respaldiza y en el Centro Social de Luiaondo o en la página www.euskaraldia.eus. El propio 20 de noviembre comezará el reparto de chapas identificativas, que se podrán recoger en el Ayuntamiento o en la farmacia. Además, 11 instituciones, negocios y asociaciones de la localidad se han sumado de modo colectivo a la iniciativa como "Arigunes".*

# Euskara ikasteko diru-laguntzak



Abenduko lehen astean irekiko dute epea Aiarako Udalean euskara ikasteko diru-laguntzak eskatzeko.

Zehazki, erakundeak 5.901,14 euro bideratuko ditu helburu horretara eta ikastaroren bat egin duen edozein herritarrak eskuratu dezake babes ekonomikoa. Gehienez, ikasle bakoitzak jaso dezake matrikularen balioaren %75 edo, guztira, 2.000 euro.

Horretarako, jakina, 2019ko urritik 2020ko irailera bitartean egin behar izan ditu ikasketak. Halaber, zenbait dokumentazio eta izapide betetzeko beharra izango dute interesdunek, eta informazio guztia horretarako www.aiarakoudala.eus webgunean topatuko dute.

*El Ayuntamiento de Ayala va a ofrecer la posibilidad de recibir una subvención para sufragar la matrícula del ejercicio 2019/2020 a quienes cursaron estudios para aprender euskara. El plazo para solicitar la ayuda comenzará en diciembre.*



# Ikuskizuna kalean




COVID-19 birusaren pandemiak behartuta, "Igande arratsaldeak familian" ekimenaren eredua aldatu dute Hogeitalau Elkarteak eta Aiarako Udalak. Gauzak horrela, gaixotasunaren zabalpena ekiditeko, kanpoaldean egingo dute azaroaren 15ean aurreikusitako jarduera; "Piraten istorio bat". Ikuskizunean Gorka Minguezek eta Alfonso Diezek kontatu eta antzeztuko dute ipuina eta Adrian Garcia de los Ojosek, aldiz, jarriko du musika. Arespalditzan izango da hitzordua 17:00etan eta saskibaloi kantxan egingo dute, hain zuzen ere.

*Debido a la pandemia del virus Covid-19, el Ayuntamiento de Ayala y la asociación Hogeitalau Elkartea han decidido adaptar la iniciativa "Igande arratsaldeak familian" a las medidas preventivas sanitarias. Por ello, la actividad del 15 de noviembre se llevará a cabo en la cancha de baloncesto de Respaldiza a partir de las 17:00. Será el espectáculo "Piraten istorio bat" y mientras Gorka Mínguez y Alfonso Díez lo interpreten, Adrián García de los Ojos se encargará de la música.*

# Agenda

## 15
### IGANDE ARRATSALDEAK FAMILIAN
**Piraten istorio bat**

*Arespalditza, saskibaloi kantxa, 17:00*



## 22
### PRESENTACIÓN
**Dinámica para colocar buzones y paneles contra la violencia machista**

*Respaldiza, 11:00*

## 25
### KONTZENTRAZIOA
**Indarkeria matxistaren aurkako mobilizazioa**

*Arespalditza, Feriala, 18:00*



## 27
### BELDUR BARIK
**Sari banaketa**

*Orozko, on-line*

# Medidas en vigor para frenar la expansión de la pandemia

Ante el incremento de contagios del virus Covid-19 en la Comunidad Autónoma Vasca, situación que también se ha hecho notar en Ayala, el Gobierno Vasco complementó las medidas adoptadas por el Gobierno Español con una batería de directrices que entraron en vigor el 7 de noviembre. Su duración se prolongará al menos por 15 días y serán revisadas de acuerdo a la evolución de la realidad sanitaria.

Entre las decisiones más importantes se encuentra el cierre de establecimientos hosteleros y de casas de apuestas, y la restricción de las actividades culturales y socioeconómicas a partir de las 21:00, con la excepción de farmacias y gasolineras. La movilidad de la ciudadanía en el espacio público ha sido reducida hasta las 22:00, aunque si debido a sus obligaciones laborales deben desplazarse, dispondrán de transporte público hasta las 22:30. Igualmente,el aforo ha sido reducido en los centros de culto al 35% y en los deportivos al 40%. En estos últimos la mascarilla será obligatoria al realizar ejercicio físico y en los espectáculos deportivos no está permitida la asistencia de público.

***Whatsapp municipal***

***Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.***